

TOLOSAKO UDALERRIAN KALEKO SALMENTA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

SARRERA

Euskal udalerrietako herri kulturaren sustrai sakonak hedatu ditu denda edo merkataritza establezimendu finkoetatik kanpo egiten den salmentak. Hasiera batean kaleko salmenta denda finkoetan saltzen ez zena saltzeko edo saldutakoa osatzeko egiten bazen ere, gaur egun, arrazoiak arrazoi, kaleko salmenta hasierako kontzepzio hura gainditu eta gorputz sendoa hartu duen jarduera bihurtu da.

Leku finkokoa ez den salmenta, hots, kaleko salmenta deitzen dioguna geroz eta garrantzi handiagoa ari da hartzen. Hortaz, beharrezkotzat jotzen da, alde batetik, salmenta jarduerarako lehiakortasuna eta leialtasuna bermatzea, eta bestetik, kontsumitzaileen legezko eskubideak errespetatzea eta bermatzea, eta kontsumitzaileak babestea bai beren osasun eta segurtasunari dagokienez bai saltzen diren ondasun eta zerbitzuen kalitateari dagokienez.

Asmo horrekin egin da, hain zuzen, ordenantza hau, kalean saltzeko bete behar diren prozedura eta baldintzak arautzeko, indarrean dauden lege xedapenak betez.

HASIERAKO TITULUA: EZARPEN-EREMUA

1. ARTIKULUA: XEDEA

Ordenantza honen helburua Tolosako udalerrian kaleko salmenta arautzea da.

2. ARTIKULUA: KALEKO SALMENTA ZER DEN.

Kaleko salmentatzat jotzen da merkataritza esparru batetik kanpo egiten dena, saltoki desmuntagarrietan edota salmentarako berariaz egokitutako ibilgailuetan, dela ohizko saltzaile batek dela noizbehinkako batek eginga, saltzaile hori pertsona fisiko edo pertsona

juridiko bat izan daitekeelarik. Kaleko salmentak udalaren baimena behar du, baimen hori ezin da besterenganatu, eta gehienez ere urtebeteko iraupena izango du.

3. ARTIKULUA: KALEKO SALMENTAREN MODALITATEAK.

Ordenantza honen ezarpen eremuari dagozkion kaleko salmenta motak honako hauek dira:

- a) Betidanik antolatu diren aldizkako merkatuak edota berriak, leku jakinetan jartzen direnak.
- b) Azokak, jaiak, herriko ospakizunak edo eskulangintza-azokak direla eta, noizean behin antolatzen diren merkatuak.
- c) Kamioi-denda edo kaleetan jartzen diren postuetako salmentak, egoera eta baldintza jakinetan baimendutakoak.

4. ARTIKULUA: ALDIZKAKO MERKATUAK

1. Kaleko salmenta egiten den saltegi multzoak dira honelako merkatuak, betidanikoak zein berriak, eta udalak erabakitako kale esparruetan egiten dira maiztasun finkoz.
2. Tolosan, mota horretako azokatzat jotzen dira larunbatero Euskal Herria plazan, Berdura plazan eta Zerkausian egiten direnak eta, zuhaitz landareak saltzeko garaian, hilean bi larunbatetan, Atadi kalean egiten direnak, denak 08:00etatik 14:00etara.
3. Era daitezkeen azoka berriak gehienez ere astean 2 egunetarako izango dira, eta egingo dira Tolosako Udalak agintzen dituen egun eta orduetan.

5. ARTIKULUA: NOIZBEHINKAKO MERKATUAK

1. Herriko, estatuko edota autonomi elkarteko jaiak edo festak direla-eta noizean behin antolatzen diren merkatuak dira, baita udaldian edota kirol-, kultur- edo jai-giroko gertakariak direla-eta antolatzen direnak ere, edota jai horiek ospatzen diren aldian janari-edariak saltzeko direnak.
2. Eskulangintza azokak ere mota honetakoan artean sartzen dira. Azoka horiek udal baimenen jabe diren pertsona guztiei dagozkien berariazko jardueraren edo jardueren babesean sortutakoak dira. Azoka horiek ezohikoak izaten dira, eta horien kokapena, maiztasuna eta saltoki kopurua aldez aurretik erabakiko dira alkatetzak emango duen ebazpenaren bidez.

Salmenta egiten duenak berak edo beste batzuek egindako eskulanak saltzea baimentzen da merkatu horietan, esate baterako, larruzko gaiak, zeramikazkoak, margoak, eskulturak, apaingarriak, etab.

Eskulangintzan egindako elikagaiek osasunaren alorrean indarrean dagoen legeria beteko dute zorrotasunik handienaz.

6. ARTIKULUA: KAMIOI-DENDAK

1. Salmenta mota hau egiteko, saltzaileak erabiltzen du furgoneta edo kamioi moduko ibilgailuren bat, garraioari eta baimendutako produktuen salmentari dagozkion arauen arabera egokituta.

Jarduera aldizkakoa edo noizbehinkakoa izango da, eta Udalaren baimenean agertzen den lekuan edo lekuetan egingo da.

2. Jan-edarien salmentari dagokionez, ibilgailuari egin zaizkion egokitzapenak eta osagarriak ere agertuko dira, ezarri beharreko teknika eta osasun arloko araudiak betetzen dituela egiaztatzeko.
3. Baimena emateko 14. atalean eskatzen diren baldintzez gain, eskabide-egileek honako agiri hauek erantsi beharko dizkiote eskabideari: Ibilgailuaren zirkulazio-baimena, ibilgailua erabiltzen duenaren gida-baimena eta dagozkion IAT gainditu izana egiaztatzen duen agiria.

7. ARTIKULUA: EZARPEN FINKOKO TXOSNA DESMUNTAGARRIETAN EGITEN DEN SALMENTA

1. Kaleko salmenta mota honetan honako modalitate hauek sartzen dira:
 - a) Karamelu (gozoki) eta fruitu lehorren saltokiak.
 - b) Bisuteria eta eskulanen saltokiak.
 - c) Izaera ekonomiko edo sozialeko gauzak eta aldizkariak saltzen dituzten saltokiak.
 - d) Zirkuak, antzokiak eta bestelako ikuskizunak ezartzen direnean jartzen diren saltokiak.
 - e) Berariaz loreak eta landareak saltzeko diren saltokiak.
 - f) Janari-saltokiak.
2. Ez dira atal honetan sartuko desmuntatzen ez diren saltokiak, honako gaiak saltzen badituzte:
 - a) Txurro eta frijituen saltokiak.
 - b) Izozki eta freskagarrien saltokiak.

- c) *Gaztaina* erreen saltokiak.
 - d) Loreak eta landareak saltzeko berariazko saltokiak.
 - e) Egunkariak, agerkariak eta aldizkariak saltzeko direnak.
3. Espresuki salbuesten ez diren gainerako saltokiak kaleko salmentatzat hartuko dira.
 4. Egunkari, aldizkari, ONCEren txosna eta noizbehinkako argitalpen horiei buruzko berariazko arauetan ezarritakoarekin bat etorrita arautuko dira.

8. ARTIKULUA:

Ez dute inolaz ere kaleko salmenta izaera izango:

- a) Etxez etxeko salmentak.
- b) Urrutiko salmentak.
- c) Aldizkako salmentak.
- d) Makina automatikoen bidezko salmentak.

9. ARTIKULUA:

Ordenantza honetan aurreikusitako kasuez kanpo debekatuta dago kaleko salmenta udalerrri honetan.

10. ARTIKULUA: SALBUETSITAKO HIRIGUNEAK

1. Salbuetsitako hirigunea Ordenantza honekin batera doan I. eranskinean agertzen da, eranskinean bertan datorren planoan. Hirigune hori Eusko Jaurlaritzak onartutako maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak (merkataritza-jarduerari buruzkoa) gai honi buruz agintzen duena betez zehaztu da.
2. Tolosako salbuetsitako hirigunea Tolosako Udalak onetsi zuen, Gipuzkoako Merkataritza Ganbararen aholkuak entzun ondoren, eskualdeko merkataritza ekipamendua kontuan izanik eta biztanleriaren kontsumitzeko ahalmenera doituta dagoela egiaztatu ondoren.
3. Etorkizuneko azokei begira ezar daitekeen salbuetsitako hiriguneak homogeneous eta etengabea izan behar du, eta nolana ere herriko erdigunea hartu behar du baitan.
4. Feria, ospakizun berezi, herri gertakari edo tradiziozkoak izan daitezken azokak arautu egingo dira, salbuetsitako hiri-perimetroan kaleko salmenta debekatuta badago ere, betiere Udalaren eta udalerriko merkataritza eta kontsumitzaileen elkartearen iritzia entzun ondoren.

I. TITULUA. KALEKO SALMENTARAKO BAIMENDUTAKO SALTOKI ETA PRODUKTUAK

11. ARTIKULUA: SALMENTAKO PRODUKTUAK

Osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen gaiak saltzeko baimena eman daiteke, baldin eta indarrean dagoen legeriak berariaz debekatzen ez badu kaleko salmentaren bidez komertzializatzea.

12. ARTIKULUA: SALTOKIAK

1. Saltokien kopurua, horietako bakoitzean salduko diren salgaien adierazgarri eta guzti, saltokien neurriak eta gainerako baldintzak baimen bakoitzean zehaztuko ditu organo eskudunak.
2. Baimenen jabeek zehazten diren baldintzetara egokitu beharko dituzte euren instalazioak, betiere kontuan izanik instalazio desmuntagarri eta garraiagarriak izan beharko dutela, eta segurtasun, osasungarritasun eta kaleko egokitasun baldintzak bete beharko dituztela.
3. Udalak plano bat egingo du eskalan saltoki bakoitzaren zenbakia eta kokapena ikusteko eta merkatuaren antolamendua eta kontrola bermatzeko. Saltokien zenbakia bat etorriko da Udalak emango dituen baimen eta txarteleko zenbakiekin.

13. ARTIKULUA: JANARI-EDARIAK KALEETAN SALTZEKO SALTOKIEN BALDINTZAK

Janari-edariak kaleetan saltzeak dituen berezitasunak kontuan izanik, ordenantza honetan saltoki guztietarako ezartzen diren baldintza orokorrez gain, horrelako produktuak saltzen dituzten saltokiek merkataritza produktuei buruz berariazko arauak ezartzen dituzten garbitasun- eta osasun-baldintzak eta bestelakoak ere bete beharko dituzte.

II. TITULUA: KALEKO SALMENTA EGITEA

I. KAPITULUA: KALEKO SALMENTA EGITEKO ESKAKIZUNAK

14. ARTIKULUA:

Tolosako udalerrian kaleko salmenta egiteko honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Dagozkion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren idazpuruetan izena emanda egotea eta zerga horren ordainketan eguneratuta egotea.
2. Gizarte Segurantzaren, dagozkion erregimenean, izen emana egotea eta kuotaren ordainketan eguneratuta egotea. Pertsona juridikoen kasuan, Gizarte Segurantzaren enpresa bezala izena emanda egotea, bere langileak afiliatuta edukitzea eta kuoten ordainkizunak eguneratuta edukitzea.
3. Saltokiaren eta bertan erabiltzen diren elementuen gertakizunei dagozkien erantzukizun zibileko aseguru-poliza kontratatzea.
4. Merkataritza-produktuei buruzko berariazko arauak ezartzen dituzten garbitasun eta osasun baldintzak edo bestelakoak betetzea.
5. Udal-baimenaren jabe izatea.
6. Dagozkion prezio publikoak ordaintzea.
7. Atzerriarrei dagokienez, dagozkien egoitza eta lan-baimenak lortu izana egiaztatzen duten agiriak, edota egoitza izateko eta lan egiteko gaitasuna ematen dien beste edozein agiri.
8. Salmentarako ibilgailuak erabiltzen badira, zirkulazio-baimena egiaztatzeko agiria, baita IAT gaingaitu izanarena ere.

II. KAPITULUA: UDAL-BAIMENAK

15. ARTIKULUA: DOKUMENTAZIOA

Udalari salmentarako baimena eskatu nahi dionak honako dokumentazioa aurkeztu behar du:

1. Baimen-eskaera Alkatetzara bidaliko da honako dokumentazioarekin batera, betiere Tolosako Udalaren sarrera erregistroarekin:
 - a) Eskatzailearen izen-deiturak, eta pertsona juridikoa bada:
 - Bere izena eta bere legezko ordezkariaren izen eta abizenak.
 - Baimena erabiliko duen bazkidearen edo erakundeko langilearen izena, deiturak eta N.A.N.

- b) Baimenaren xedeko azokaren aldizkakotasuna eta kokapena.
 - c) Zenbat metro eskatzen diren.
2. Eskatzailearen NANaren eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren (eskatzailea pertsona juridikoa bada) fotokopia.
 3. Saltokiaren titulartasuna eskatzen duenaren NANaren fotokopia, hori baimena eskatzen duen bera ez denean.
 4. Baimena duten pertsonen eta/edo titularrak noizbehinka saltzeko baimena eman dien pertsonen NANaren fotokopia.
 5. Gizarte Segurantzako kotizazioen alta eta azkeneko ordainagiria.
 6. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta eta azkeneko ordainagiria.
 7. Pertsona juridikoen kasuan, enpresa eraketaren agiria, Merkataritza Erregistroan behar bezala izena eman ondoren, hala behar izanez gero.
Era berean, ordezkaritza balioztatu egin beharko da zuzenbidearen aldetik indarra duen edozein baliabidez edota eskaera-egileak berak deklarazioa eginez.
 8. Betekizun higienikoak eta osasunekoak betetzen direla egiaztatzen duen agiria, eta elikagaiak saltzen badira, elikagaiak maneiatzeko gaitasun agiria.
 9. Nekazaritza Ustiapen Erregistroan izena emandako saltzaileak agiriz erakutsi beharko du bere ezaugarri hori.
 10. Nekazaritza Erregimeneko Gizarte Segurantzaren izena emandako agiriaren fotokopia, segurantza hori ordaintzen bada.
 11. Titularraren bi argazki.
 12. Atzerritarrei dagokienez, bizilekuaren eta lan egiteko baimenaren agiriaren fotokopia edota horiek egiaztatzeko beste edozein agiri. Aipaturiko agiriak bideratze prozesuan baldin badaude, dagokion ordezkagiriaren fotokopia onartuko da.

III. KAPITULUA: PROZEDURA

16. ARTIKULUA:

Eskabidea eta dagozkion agiriak jaso ondoren, udaleko organo eskudunak agiri horiek eta gainerako txostenak aztertuko ditu, eta baimena eman edo ez erabakiko.

17. ARTIKULUA:

Edonola ere, janari-edariak kaleetan saltzeko baimena emateko, agintaritza eskudunaren baietza beharko da.

18. ARTIKULUA:

1. Udalaren baimenak nahitaez honako hauek jasoko ditu:

a) Baimenak iraungo duen aldia.

b) Lizentziaren titularraren eta bere izenean aritu ahal izango diren pertsona edo pertsonen izen-deiturak edo sozietatearen izena.

c) Baimendutako salgaiak.

d) Saltokiari aldizkako merkatuan dagokion zenbakia, edota salmenta egin dezakeen lekua edo lekuak.

e) Salmentarako egunak eta ordutegiak, merkatuak noizbehinkakoak direnean.

f) Okupatuko den azalera.

g) Instalazioaren ezaugarriak.

19. ARTIKULUA:

1. Aldizkako merkatuan saltoki finkoan saltzeko baimena duten saltzaile guztiek identifikazio txartela edukiko dute. Txartel horretan honako datuok azalduko dira argi eta garbi:

a) Titularraren eta, baleude, baimenduriko pertsonen izen abizenak..

b) Saltzeko baimenaren balio epea.

c) Baimendutako gaiak.

d) Postuaren zenbakia eta neurriak, merkatua noizbehinkakoa denean; eta baita saltokiaren kokapen finkoa eta saltzeko leku baimendua ere.

2. Identifikazio txartel hori udal agintariak eskatzen duten guztietan erakusteko izango da.

20. ARTIKULUA:

1. Baimenek izaera berezia izango dute eta, ondorioz, Udal honek baliogabetu ahal izango ditu komenigarritzat jotakoan, hau da, hori eragin zuten zirkunstantziak desagertzen direnean. Baimenek ez dute efekturik izango ezarritako baldintzak betetzen ez direnean, eta hori dela eta ez da inongo kalte ordainik edo konpentsaziorik ordainduko.

2. Aldizka eta leku jakinetan egiten diren merkatuei dagokienez, saltzaile batek ezingo du kaleko salmentarako baimen bat baino gehiago jaso aldi berean, ez eta unitate familiarra edo enpresa bada ere.

21. ARTIKULUA:

1. Baimenak ematerakoan lehentasuna izango dute honakoek:
 - a) Tolosan bizi diren saltzaileak.
 - b) Gai interesgarriak saltzen dituzten saltzaileak.
 - c) Baimena eman behar duen organo eskudunak baimena ematerakoan egokitzen jotzen dituen alderdi edo baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak.

22. ARTIKULUA:

1. Maiztasun eta kokapen finkoko merkatuetan urtean zehar hutsik geratzen diren saltokiak, bestalde, beren eskaria indarrean egon arren eta baldintza guztiak bete arren, aurretik baimenik lortu ez zuten eskatzaileen artean adjudikatuko dira.
2. Hutsik dauden saltokietan pertsona baimenduak baldin badaude, horiek lehentasuna izango dute saltoki hori adjudikatzerakoan, baldin eta baja eman duen titularrak zorrik utzi ez badu saltoki hori erabiltzeagatik eta merkatu berean beste saltoki bat erabiltzeagatik. Hala ere, aurreko saltzailearen zorrak kitatuz gero ere, adjudikaziorako lehentasuna izango du kitatzaileak, betiere organo eskudunak hala erabakitzen badu.

IV. KAPITULUA: UDAL BAIMENAREN EZAUGARRIAK

23. ARTIKULUA:

Udal-lizentzia pertsonala da eta ezingo zaio beste inori eskualdatu; alabaina, titularraren familiakoek edo behar bezala baimendutako langileek erabili ahal izango dute.

Aurreko arau horrek ez du eragotziko saltokia handitzeko eman daitezkeen baimenak, eskualdeko produktuak saldu nahi direnean.

24. ARTIKULUA:

1. Udal-baimenak gehienez ere urte bete iraungo du, hain zuzen, abenduaren 31 arte, salbu honako kasuetan:
 - a) Baimena denboraldi jakinetan egiten diren merkatuetan saltzeko denean; holako baimenak denboraldia amaitzeaz batera indargabetuko dira.

- b) Baimena noizbehinkako merkatuetan kalez kale saltzeko eta kamioi dendetan saltzeko denean. Baimen horiek ematen direnean baimenetan finkatuko dira salmenta egiteko egunak.
2. Baimena berritzeko, beharrezko agiriak aurkeztu beharko zaizkio udal agintaritzari horretarako ezartzen den epean.

V. KAPITULUA: BAIMENA INDARGABETZEA

25. ARTIKULUA:

Lizentzia indarririk gabe utz dezake Udalak ondorengo egoerak ematen direnean:

1. Titularrak berak baja eskatzea.
2. Jabea hiltzea edo enpresa desegitea.
3. Baimena galtzea dakarren zigorra.
4. Saltokia beste norbaiti alokatzea.
5. Baimena emateko eskatzen diren baldintzaren bat ez betetzea.
6. Baimenik ez duten gaiak saltzea.
7. Salmentarako baimendutako esparrutik kanpo saltzea.
8. Baimenari dagozkion tasak ez ordaintzea (hiru premiamendu prozesu irekitzea).
9. Ondoz ondoko bost asteetan merkatura ez agertzea edo adjudikatu zaion saltokira txandaka ez agertzea 10 egunetan inolako arrazoirik gabe.
10. Urtea amaitzean.
11. Udal organo eskudunaren iritziz baimena indargabetzeko beste edozein arrazoi ematen denean.

III. TITULUA: KALEKO SALMENTA EGITEN DUTENEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

26. ARTIKULUA: ESKUBIDEAK.

1. Tolosako udalerrian kaleko salmenta egiteko udal baimenen jabe direnek honako eskubide hauek izango dituzte:
 - a) Baimendu zaizkien saltokiak hartzea.
 - b) Publikoki eta bakean gauzatzea udalak baimendutako salmenta-jarduera, baimenak zehazten dituen eta/edo dagokion merkatuari aplikagarri zaion ordenantza berezian jasotzen diren ordu eta baldintzetan.

- c) Baimendutako jarduera egin ahal izateko, herriko agintaritzaren eta udaltzaingoaren babes eskatzea.
- d) Baimena eman den merkatua eteten bada, udal baimenaren jabe denak haren orde egin daitekeen merkatuan beste saltoki bat lortzeko lehentasuna izatea, eta, ahal den neurrian, iraungitako baimenaren baldintza berak gordez.
- e) Erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztea, jarduera gauzatzeko baimendu zaieneko merkatua hobeto funtziona dadin.
- f) Udalak banatzen duen identifikazio-txartela jasotzea.
- g) Saltokian salmenta egitea, bai berek bai beren familia unitateko pertsona baimenduak edo jarduera horretan beretzat lan egiten duenak, baldin eta horiek Gizarte Segurantzaren alta emanda badaude titularren kontura. Baimena eskatzerakoan saltzaile titularra izango denak Udalari jakinaraziko dizkio atal honetan bertan aipatu diren beste langile horien nortasunak.
- h) Saltokia non duten jakitea. Saltoki hori, betiere, galipotez, solairuz edo porlanez estalitako zoruaren gainean ezarri beharko da.
- i) Salmentarako baimendu den data ez aldatzea Udalak, salbu jaieguna edo gertakizun bereziren baterako eguna denean; holakorik gertatzen bada, Udalak alde aurretik jakinaraziko die saltzaileei, behar adinako denboraz.

27. ARTIKULUA: OBLIGAZIOAK

1. Kaleko salmenta gauzatzeko udal-baimenaren jabeek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:
 - a) Salmenta egin beharko da edo saltokietan edo instalazio desmuntagarrietan, edo 12. eta 13. ataletan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten kamioi-dendetan, hau da, garraiatzen errazak eta jarduera horretarako egokiak direnak.
 - b) Saltokien jabeek agerian ezarriko dute euren udal-baimena edota bestela udal-agintaritzari edozein unetan erakusteko moduan edukiko dute. Betebehar hori ez betetzeak edota baimenean zehazten ez diren produktuak saltzeak saltokia badaezpada ixtea ekarriko du, bidezko den zigor espedienteari hasiera ematearen kalterik gabe.
 - c) Salmenta egingo den esparrura sartzen ez da utziko tasaren ordainagiririk gabe, horrela zehazten baita Tolosako Udalaren Ordenantza Fiskaletan ere.
 - d) Saltzaileek, merkataritza-jarduera gauzatzerakoan, unean uneko arauak merkataritza, merkatuko erregimenaz eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesaz xedatutakoa bete beharko dute.

- e) Saltokietan txartelak eta etiketak ezarriko dituzte, eta horietan ikusteko moduan agertuko dira eskaintzen diren produktuen prezioak. Salgai dauden produktuen prezioa argi eta garbi azalduko da, une oro gai honi buruz indarrean dagoen legeria betez. Soltean saltzen diren produktuei dagokienez, hau da, salmentako prezioa produktuaren kopuruaren edo bolumenaren arabera zehazten diren produktuei dagokienez, prezioa neurri-unitatetan emango da. Era berean, dauden salgai guztiak agerian edukiko dituzte, eta ezingo da salgai horien zati bat bereizi, aukeratu edo ezkutatu.
- f) Saltokietako titularrak saltokian bertan egongo dira merkatua zabalik dagoen denboran; titularrak, hala nahi badute, udalak baimendutako beste batzuekin egon daitezke saltokian.
- g) Behar bezalako egiaztagiria dituzten udaleko langile edo agintaritzak eskatzen dietenean, erakutsi beharreko agiri guztiak erakutsiko dizkiete saltzaileek.
- h) Salmenta gauzatzen dutenen ibilgailuak ezingo dute merkatuaren barrualdean egon, ez eta saltokiaren ondoan ere. Merkatuaren kanpoaldean horretarako jarriko diren tokietan aparkatu beharko dira. Kamioi dendak eta berariaz horretarako baimena duten ibilgailuak debeku horretatik kanpo daude.

Salgaien zama lanak egiteko, ibilgailuek merkatuaren barruan aparkatu ahal izango dute lan horiek erabat amaitu arte eta betiere zeregin horietarako ezarriko diren ordutegiaren barruan.

- i) Baimenen jabeek salmentarako esparruak eta tokiak errespetatuko dituzte. Salmentarako gune horiek ez dira inoiz toki publiko, pribatu edo merkataritza edo industria etxeen sarbideetan jarriko. Era berean, horien erakusmahai edo erakustokiak, trafiko-seinaleak edo bestelako adierazgarriak ikustea eragozten dutela ere ezin izango dira jarri. Kaleen bidegurutzetan, oinezkoentzako pasaguneetan edo etxebizitza, denda edo ibilgailuak gordetako sarreretan ere ezin izango dira ezarri.
- j) Kaleko salmenta gauzatzen dutenek kontsumitzaileen erreklamazioak, horrelakorik badago, zein helbidetan jasoko diren adierazi beharko dute ikusteko moduan jarritako txartelaren bidez. Helbide hori, betiere, salmentaren ordainagiri edo egiaztagirian azalduko da.
- k) Salgai pisagarri eta neurgarriak eskaintzen dituzten saltokiek arauzko baskula eta metroak izan beharko dituzte.
- l) Salgai guztiak behar bezala babesturik erakutsi beharko dira jendaurrean, eta lurretik gutxienez 80 cm-ra, duten bolumena edo pisuagatik arazoren bat sortzen ez badute behintzat.

- m) Janari-edariak ere, ahal den neurrian, produktu bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako edukiontzi homologatuetan erakutsiko dira.
- n) Saltzaileek salmentaren ordainagiria edo ziurtagiria ematera derrigortuta daude bezeroak hala eskatzen dienean. Ordainagiri horretan gutxienez ere honako datuak azalduko dira:
- Datu pertsonalak.
 - NAN edo NIE.
 - Helbidea.
 - Salgaiak.
 - Prezioa eta data.
 - Kopurua.
 - Sinadura.
- o) Saltzeko gairik ezingo da saldu nor bere saltokitik kanpo, eta ezingo da oztopatu saltoki arteko kaleetako zirkulaziorik.
- p) Saltzaileek ezingo dute beraiei dagokien lekua baino gehiagorik hartu, ez eta saltokia lekuz aldatu ere, nahiz eta horretarako leku libreak egon.
- q) Merkataritza jardueraren ondorioz sortzen diren zaborrak, ontziak, bilgarriak eta gainerako hondakinak saltzaileak berak bilduko ditu, gero horretarako ezarritako edukiontzietan jasotzeko. Edukiontzi horien kokapena ezingo da aldatu kaleko salmentaren eraginez.
- r) Saltokiko instalazioak kontserbazio-egoera onean gorde beharko dituzte.
- s) Saltokien jabeek ordaindu beharko dituzte zoruan, zuhaitzetan, kaleko argietan eta antzekoetan egin ditzaketen kalteak.
- t) Erantzukizun zibileko aseguru poliza izenpetu beharko dute, jarduera gauzatzen den instalazioetan besteei egindako kalteak estali ahal izateko.
- u) Debekatuta dago salgaiak bozgorailuen bidez aldarrikatzea.
- v) Udal-baimena duten saltzaileek, gai honi buruzko Ordenantzak edo indarrean dagoen legediak agintzen duenarekin bat, udal agintari, funtzionario edo horien entitate ordezkariak emandako aginduak beteko dituzte, kaleko salmenta egiteko baimendutako merkatuak behar bezala ibil daitezzen.

w) Kaleko salmentarako indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen betebeharrak, edota etorkizunean ezartzen dituenak, ezargarri izango zaizkie udal baimenen jabeai, eta legedi hori jagoteko eta betetzeko ardura dagokion herri-administrazioaren organo eskudunak izango du.

2. Aldizkako merkatuetan saltzaileen ordezkari batzordeak era daitezke. Batzorde horiek demokratikoki aukeratuko dira merkatuko saltokietako titularren artean; batzordeak gutxienez ere hiru lagunez eratuko dira eta bost lagunez gehienez ere. Ordezkariak aukeratzeko merkatuan saltzen diren gaien ordezkariarik handiena lortzeko ahalegina egingo da. Merkatuko ordezkarien batzorde horrek merkataria ordezkatuko ditu arazoren bat dagoenean Udalarekin izaten diren harremanetan. IV.

IV TITULUA: ZIGORTZEKO ARAUAK

I. KAPITULUA: KALEKO SALMENTA ZAINTZA ETA IKUSKATZEA

28. ARTIKULUA:

1. Udalak, ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta kaleko salmentaren alorrean unean-unean indarrean dauden garbitasun-, osasun- eta segurtasun-arauak zainduko ditu, beste herri-administrazio batzuek ere euren aginpideez baliatzearen kalterik gabe.
2. Udalak zaintze-zereginak gauzatzeko, produktu, jarduera eta instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, bai eta horiei buruzko behar adina informazio saltzaileei eskatu ere.
3. Espedienteari hasiera emateko agintzen duen agintaritzak salgai dauden produktuak badaezpada bahitzea erabaki dezake, baldin eta produktu horiek kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jartzen badute, edo kalitatean edo kantitatean iruzurrezkoak, faltsututakoak, bereizgarririk gabeak edo merkataritzarako ezarri diren gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak badira.

II. KAPITULUA: ZIGORTZEKO JARDUNBIDEA

29. ARTIKULUA:

Merkataritza jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean arautzen den Eusko Jaurlaritzako organo zigortzailearen aginpidearen kalterik gabe, ordenantza honetan xedatutakoarekiko arau-hausteak udalak zigortuko ditu

30. ARTIKULUA:

Ordenantza honetan aurreikusitako arauak haustearen ondoriozko zigorrak ezartzeko eta erabakien aurka jar daitezkeen errekurtsotarako jardunbidea indarreko administrazio jardunbideko arauak ezarritakoa izango da.

31. ARTIKULUA:

Kaleko salmentarako udal-baimenaren jabeak ordenantza honetan xedatutakoaren aurka euren, euren familiakoek edo saltokian lan egiten duten soldatapeko langileek egiten dituzten arau-hausteen erantzule izango dira.

III. KAPITULUA: ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

32. ARTIKULUA: ARAU-HAUSTEAK.

Arau-haustek izan daitezke arinak, larriak edo oso larriak:

1. ARINAK.

Arau-hauste arintzat hartuko da ordenantza honetako erabakiak ez betetzea, betiere larri edo oso larritzat jotzen ez den jokabide horrek zuzeneko diru ondorioz ez badu eta kontsumitzaileei kalterik sortzen ez badie.

2. LARRIAK. Larritzat hartuko dira honako arau-hauste hauek:

1. Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.
2. Arauak hausten dituzten jarduerak eteteko eskakizuna ez betetzea.
3. Ondorio ekonomiko zuzen edota erostunei kaltea sor diezaioketenak.
4. Osasunaren inguruko arau-hauste larria suposatzen dutenak.
5. Udalaren baimenik gabe, salmenta aurrera eramatea.
6. Udal-ordezkariek edo udaltzainek, ordenantza honetan aipaturiko ikuskatze lanak direla eta, eskaturiko informazio eta datuak emateari uko egitea, bai eta informazio desegokia, osoa ez dena ematea behin eta berriz gertatzen denean edo udal ordezkariekin mehatxu edo beste edozein presio bide erabiltzen denean.
7. Okerrak zuzentzeko eskaerari uko egitea.
8. Merkataritza lehiaketen adjudikazioa oker erabiltzea.
9. Merkataritza-lehiaketa ofizialak antolatzea eta ospatzea baimenik gabe, edo irabazi asmoz "ofiziala" hitza erabiltzea ofizialtasunik lortu gabe, eta zuzenean baimenik gabe saltzea.

10. Merkataritza-lehiaketa ofizialetan batzorderik ez egotea edo hori eratzeko araudiak agintzen duena ez betetzea.

11. Azoketako jarduerak burutzea horietako arautegiak agintzen duena bete gabe.

3. OSO LARRIAK.

Oso larritzat hartuko dira honako arau-hauste hauek:

1. Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.
2. Osasunaren inguruko arau-hausteekin batera gertatzen direnak edo gizakien segurtasuna arrisku larrian jartzen dutenak.
3. Kontsumitzaileei kalte larriak sortzen dizkietenak.
4. Gehiegizko irabazpidea ematen duten edo ekonomiaren antolaketa larriki aldatzen duten arau-hauste larriak.
5. Baimenari dagozkion tasak ez ordaintzeagatik hirugarren premiamendua jasotzea.
6. Kontsumitzaileei kalte larriak eragitea.

33. ARTIKULUA: ZIGORRAK.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako legedi orokorrean aurreikusitakoa ezartzearen kalterik gabe, arau-hausteak merkataritza jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira. Arau-hauste arinak eta larriak zigortzea udalari dagokio, honako taula honen arabera:

ARAU-HAUSTE ARINAK. Arau-hauste arinen zigorrak honako hauek izango dira:

- a) Ohartu
- b) eta/edo 1.500 €-rainoko isuna.

ARAU-HAUSTE LARRIAK. Honako zigorrak emango dira arau-hauste larrietan:

- a) 9.000 €-rainoko isuna
- b) eta/edo baimena kentzea.

ARAU- HAUSTE OSO LARRIAK.

Arau-hauste oso larriak Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek zigortuko dituzte.

Tasak ez ordaintzearen arau-hauste larriak kanporatze jardunbideari ekitera eramango du Udala.

34. ARTIKULUA: ZIGOR OSAGARRIA

Espediente horren erabakia hartzea dagokion aginteak zigor gehigarri bat erabaki dezake: faltsifikaturiko, iruzurrezko, identifikatu gabeko edo komertzializaziorako behar-beharrezko diren arauak betetzen ez dituzten gaien konfiskazioa.

35. ARTIKULUA: ISUNEN MAILAKETA.

Nolanahi ere, ezar daitezkeen zigorrak mailakatzeko, kontuan izango dira betiere saldutako produktuen izaera, egindako kalteak, araua hautsi duenaren asmoa edo behin eta berriro egitea eta arau-haustea gizartean izan dezakeen eragina.

36. ARTIKULUA: PRESKRIPZIOA.

1. Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hauste eta zigorrek sei hilabetera galduko dute indarra, arinak badira; urtebetera, larriak badira; eta bi urtera, oso larriak badira.
2. Arau-hausteen indarra galtzeko epe horiek arau-haustea gertatu diren egunetik hasiko dira kontatzen.

Dagokiona jakinaren gainean egonik, zigortzeko jardunbidea hasteak preskripzioa etengo du, eta zigor espedientea hilabete baino denbora luzeagoz geldirik egoten bada, ustez arduraduna denak zerikusirik izan gabe, preskripzio epeak berriz aurrera egingo du.

3. Zigorrak indarra galtzeko epea zigorra jartzeko erabakia indarrean jarri eta biharamunean hasiko da.

Dagokiona jakinaren gainean egonik, egitaratzeko jardunbidea hasteak preskripzioa etengo du, eta epeak berriz ere aurrera egingo du, arau-haustea zerikusirik izan gabe jardunbide hori hilabete baino denbora luzeagoz geldirik badago.

BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

1. Ordenantza hau indarrean jarri baino lehen lortutako udal-baimenek indarrean jarraituko dute, hain zuzen ere ordenantza horren babesean, 2003ko abenduaren 31 arte.
2. Ordenantza hau indarrean jartzekoan tramitazioan egon daitezkeen kaleko salmentarako baimen-espedituentzako, ordenantzan xedatutakora lotuko dira, nahiz eta

espediente horiek lehenagotik irekitakoak izan. Horretarako, interesatuei dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatuko zaie, arauz hala eskatu behar bada.

3. Ordenantza hau indarrean jartzerakoan tasak ez ordaintzeagatik hiru premiamendu prozeduratan sartuta dauden saltokietako titularrak kanporatu egin ahal izango ditu Udalak hurrengo zorra borondatezko epean ordaintzen ez badute.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen den une berean indargabetu egingo dira, maila berekoak edo beheragokoak izanik, orain onartu den testuaren kontra badoaz, hori ukatzen badute edo horrekin bateragarriak ez badira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko (apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatua) 70.2 artikuluan agindutakoaren arabera jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA

EUSKAL HERRIA PLAZAKO AZOKAN ERABILIKO DEN ARAUTEGIA. KALEKO SALMENTA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA OROKORRAREN ERANSKIN HONEK ORDENANTZA HORREN EDUKIA GARATZEN ETA ZABALTZEN DU EUSKAL HERRIA PLAZAKO AZOKARI DAGOKIONEZ.

EUSKAL HERRIA PLAZA

KALEKO SALMENTAREN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA

EZARPEN EREMUA

KALEKO SALMENTAZ

1. ARTIKULUA: XEDEA

Arautegi honen xedea da ordenantza hau xehetasun handiagoz garatzea, Tolosako Euskal Herria plazan egiten den kaleko salmentari dagokionez.

2. ARTIKULUA: AZALPENA

Kaleko salmentatzat jotzen da merkataritza esparru batetik kanpo egiten dena, saltoki desmuntagarrietan edota salmentarako berariaz egokitutako ibilgailuetan, dela ohizko saltzaile batek dela noizbehinkako batek egina, saltzaile hori pertsona fisiko edo pertsona juridiko bat izan daitekeelarik. Kaleko salmentak udalaren baimena behar du, baimen hori ezin da besterenganatu, eta gehienez ere urtebeteko iraupena izango du.

3. ARTIKULUA: SUBJEKTUAK

1. Tolosako Euskal Herria plazako merkaturan kaleko salmenta egin ahal izango dute Ordenantza honetan finkatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek.
2. Pertsona juridikoa irabazi asmorik gabeko erakundea bada, edo elkarlanerako kooperatiba, onartuko da baimenaren titulartzat sozietateko bazkide bat agertzea. Hori gertatzen denean, kooperatiba edo sozietatearen legezko ordezkariak eskatuko du jarduerarako baimena. Eskaera horretan, ordenantza honetan izaera orokorrean eskatzen diren agiriez gain, zerga-zorrak eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko behar diren agiriak aurkeztuko dira. Baimenaren eskatzaileak, halaber, aipatu kooperatiba edo elkartearen eraketako eskriturak aurkeztu behar ditu.

Legezko ordezkariak ziurtagiri bat emango du baimena eskatzera agertuko den bazkideak kooperatiba edo sozietateko kide bezala baimena eskatzeko ahalordea duela esanez eta bazkide horrek egingo dituen jardueren ondorioz erator daitezkeen lege erantzukizunak kooperatiba edo sozietateak bere gain hartuko dituela aitortuz.

ORDUTEGIA

4. ARTIKULUA: ALDIZKAKOTASUNA

Euskal Herria plazako azoka larunbat goizez egingo da. Azoka eguna jaiegunean gertatzen bada, azoka hurrengo edo aurreko lanegunera aldatuko da. Udalak, herriaren interesak hala eskatzen duenean, azoka-eguna aldatzeko edo bertan behera uzteko eskubidea dauka. Holakorik gertatzen bada, titularrek ez dute inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

5. ARTIKULUA: ORDUTEGIAK

Honakoa da Euskal Herria plazako azokako ordutegia:

1. Goizeko seietatik zortzi eta erdiak bitartean jarriko dira postuak. Aldi horretan saltzaileek beren autoak sartu ahal izango dituzte Euskal Herrian plazan. Tarte hori izango da zamalanetarako eta saltokia muntatzeko garaia.
2. Zortzi eta erdiak eta ordu bata bitartean salmenta egingo da.
- 3.- Ordu bata eta ordu bi eta erdiak bitartean jasoko dira postuak. Aldi honetan saltzaileek plazara sartu ahal izango dituzte autoak.

6:00-8:30: Postuak muntatzea
8:30-13:00: Salmenta
13:00-14:30: Postuak jasotzea

UDAL-LIZENTZIAREN EZAUGARRIAK

6. ARTIKULUA: DOKUMENTAZIOA

Udal-lizentzia lortzeko, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

1. Alkatetzara zuzenduriko eskaera, Tolosako Udaleko sarrera erregistroa duela. Eskaera horretan honako argibideak emango dira:
 - a) Eskatzailearen izen-deiturak; eta pertsona juridikoa bada, hau:
 - Bere izena eta bere legezko ordezkariaren izen eta abizenak.
 - Baimena erabiliko duen sozioaren edo erakundeko langilearen izena, deiturak eta N.A.N.
 - b) Baimenaren xedeko azokaren aldizkakotasuna eta kokapena.
 - c) Eskatzen diren metroak.
2. Eskatzailearen NANaren eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren (eskatzailea pertsona juridikoa bada) fotokopia.
3. Saltokiaren titulartasuna eskatzen duenaren NANaren fotokopia, hori baimena eskatzen duen bera ez denean.
4. Baimena duten pertsonen eta/edo titularrak noizbehinka saltzeko baimena eman dien pertsonen NANaren fotokopia.
5. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzeko agiriaren fotokopia eta azken ordainketaren ziurtagiri edo ordainagiria.
6. Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia eta azken ordainketaren ziurtagiria edo ordainagiria.

Pertsona juridikoen kasuan, enpresa Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, hala nola lanerako aurreikusi diren langileak ere Gizarte Segurantzaren alta emanda daudela egiaztatzen duen agiria, baita azken ordainketa agiriaren fotokopia ere.

7. Saltokiaren erantzukizun zibilaren aseguruaren fotokopia.
8. Pertsona juridikoen kasuan, enpresa eratu zeneko eskritura eta, egoki balitz, dagokion Merkataritza Erregistroan behar bezala izena emanda. Baimena eskatzen duenak, berebat, ordezkari eta egiaztatu behar du zuzenbidera lotutako edozein bide fede-emaile erabiliz edo bertaratu eta ordezkari izaera hori zuzenean aitortuz.
9. Higiene eta osasun alorreko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko agiria. Elikagaiak saltzen badira, elikagaiak maneiatzeko gaitasun agiriaren fotokopia aurkeztu behar du eskatzaileak, elikagaien arautegiak gaitasun hori eskatzen duen elikagaiak saltzen badira.
10. Atzeritarrei dagokienez, bizilekuaren eta lan egiteko baimenaren agiriaren fotokopia edota horiek egiaztatzeko beste edozein agiri. Aipaturiko agiriak bideratze prozesuan baldin badaude, dagokion ordezkariaren fotokopia onartuko da.
11. Titularraren bi argazki.

7. ARTIKULUA: PROZEDURA

Eskabidea eta dagozkion agiriak jaso ondoren, udaleko organo eskudunak agiri horiek eta gainerako txostenak aztertuko ditu, eta baimena eman edo ez erabakiko. Saltzeko baimena eskatu eta ezetza jasoz gero, eskaera indarrean gordeko da urte amaiera arte baimenetan hutsunerik sortuko balitz edo; urte amaieran eskaera indargabetu egingo da behin betiko.

8. ARTIKULUA: INDARRALDIA.

1. Udal baimenak gehienez ere urte bete iraungo du, hain zuzen, abenduaren 31 arte.
2. Baimena berritzeko, beharrezko agiriak aurkeztu beharko zaizkio udal agintaritzari horretarako ezartzen den epean.

9. ARTIKULUA: ADJUDIKAZIOAREN INDARRALDIA

1. Indarraldia baimena eskatu den urteko abenduaren 31n amaitzen zaien postuak adjudikatzen, bi hilabeteko epea irekiko da, azaroaren 1etik abenduaren 31ra, hurrengo urterako baimenak eskatzeko edo berritzeko eta horretarako behar den dokumentazio guztia aurkezteko.
2. Baldin titularrak biltzen baditu eskakizun guztiak eta betetzen baditu obligazio guztiak, eta hori galarazteko arrazoirik ez badago, baimena hauek berritu egingo dira.

10. ARTIKULUA: LIZENTZIAK LORTZEA

Udal-lizentzia eskuratzean, Identifikazio-txartela eta Ordenantzaren kopia bat emango dizkio Udalak titularrari.

11. ARTIKULUA: UDAL-LIZENTZIAREN ERABILTZAILEAK

Udal-lizentzia edo baimena da pertsonala eta besterendu ez daitekeena; hala ere, titularraren familiakoek eta legez baimendutako langileek ere erabili ahal izango dute.

12. ARTIKULUA: BAIMENA INDARGABETZEA

Lizentzia indarririk gabe utz dezake Udalak ondorengo egoerak ematen direnean:

1. Titularrak berak baja eskatzea.
2. Jabea hiltzea edo enpresa desegitea.
3. Baimena galtzea dakarren zigorra.
4. Saltokia beste norbaiti alokatzea.
5. Baimena emateko eskatzen diren baldintzaren bat ez betetzea.
6. Baimenik ez duten gaiak saltzea.
7. Salmentarako baimendutako esparrutik kanpo saltzea.
8. Baimenari dagozkion tasak ez ordaintzea (hiru premiamendu prozesu irekitzea).
9. Ondoz ondoko bost asteetan merkatura ez agertzea edo adjudikatu zaion saltokira txandaka ez agertzea 10 egunetan inolako arrazoirik gabe.
10. Urtea amaitzean.
11. Udal organo eskudunaren iritziz baimena indargabetzeko beste edozein arrazoi ematen denean.

13. ARTIKULUA: SALTZAILEEN IDENTIFIKAZIOA

Saltzaile baimendu guztiek identifikazio txartela edukiko dute eta identifikazio txartel hori betiere udal ordezkarien eskura egongo da. Txartel horretan, honako datuok azalduko dira argi eta garbi:

1. Baimenaren indarraldia.
2. Baimenaren titularraren izen-deiturak edo enpresa izena eta bere izenean jarduteko baimena dutenena.

3. NAN edo IFZ
4. Saltokiaren zenbakia eta neurriak
5. Saltzeko baimena duen gaia.

AZOKAREN JARDUERA

14. ARTIKULUA: POSTUAK

1. Udalak postuak mugatu eta behar bezala izendatuko ditu, eta jarriko ditu saltzaileek erabili behar dituzten mahaiak. Derrigorrezkoa da mahaiak erabiltzea, ezin dira produktuak lurrian eduki. Saltzailearen batek bere mahaiak erabili nahiko balu, mahai horrek bat etorri behar du Udalak jartzen dituen mahaien neurriekin.
2. Urtean zehar hutsik geratzen diren postuak, eskaera egin, baldintza guztiak bete eta posturik lortu ez zuten artean banatuko dira. Postu horiek banatzerakoan lehentasuna izango dute honakoek:
 - a) Tolosan bizi diren saltzaileak.
 - b) Gai interesgarriak saltzen dituzten saltzaileak.
 - c) Baimena eman behar duen organo eskudunak baimena ematerakoan egokitzen jotzen dituen alderdi edo baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak.
3. Produktu guztiak gutxienez ere 80 cm-ko altuera jarriko dira lurretik, bolumen eta pisuagatik arazorik suposatzen ez badute behintzat.
4. Debekatuta dago postuz kanpo merkantziak eta hondakinak jartzea; horiek modu egokian jaso eta gorde egingo dira, harik eta berariaz jarriko diren edukiontzietara eraman arte. Debekatuta dago, halaber, herritarren pasabideak oztopatzea.
5. Konturik handiena izango da herritarrek arriskuan jar dezaketen egitura eta merkantziekin.
6. Salmenta produktuak megafonia edo bozgorailuez iragartzea debekatuta dago, salbu salgaia musika zintak eta bideoak direnean.

7. Postuak ezingo dira lekuz aldatu, ez eta dagokien lekua baino gehiagorik okupatu ere, nahiz eta horretarako leku libreak egon.
8. Arkupetik kanpo dauden adjudikatutako postu berriek izan behar dute karpa zuri bat, neurri honetakoa: 4,5 m x 3 m.

15. ARTIKULUA: DENDA-KAMIOIAK

1. Salmenta mota honetan, saltzaileak garraioari eta baimenduriko produktuen salmentari dagozkien arauen arabera egokitutako furgoneta edo kamioi moduko ibilgailuren bat erabiltzen du. Udalaren baimenak aginduko du salmenta non egingo den.
2. Baimena lortzeko, 5. artikuluan eskatzen diren baldintzez gain, saltzaileak ondorengo agiriak aurkeztuko ditu: ibilgailuaren zirkulazio-baimena, gida-baimena, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.

16. ARTIKULUA: GARRAIOA

1. Orduz kanpo iristen denak, produktuak eskuz garraiatu beharko ditu.
2. Ibilgailuak behin hustu eta gero, merkatutik kanpo utzi behar dira, salbu salmentarako egokituta daudenak eta/edo merkatuan egoteko baimena dutenak.
3. Salmenta-garaian erabat debekatua dago autoekin merkatutik barrena ibiltzea.
4. Autoak udaltzainak adierazitako lekuetan utziko dira.

SALTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

17. ARTIKULUA: ESKUBIDEAK

1. Saltzaileak Udaltzaingoaren babesa eska dezake, baimenduriko jarduera betetzeko behar badu.
2. Titularrak erreklamazioak eta iradokizunak aurkez dezake merkatuaren antolamendua hobetzearren.
3. Euskal Herria plazako azokan saltzaileen ordezkari batzordea eratuko da. Postu titularrek demokratikoki aukeratuko dute batzorde hori; batzordea gutxienez ere hiru lagunez eratuko da eta bost lagunez gehienez ere. Ordezkariak aukeratzerakoan merkatuan saltzen diren gaien ordezkariarik zabalena lortzeko ahalegina egingo da. Merkatuko ordezkarien batzorde horrek merkatariak ordeztuko ditu arazoren bat dagoenean Udalarekin izaten diren harremanetan
4. Udalak azoka eguna, jai edo ospakizun berezi bat dela eta, aldatzea erabakitzen badu, saltzaileak Udalaren erabaki hori astebeteko aurrerapenez jakiteko eskubidea du.

Kale-salmentaren ondorioz sorturiko hondakinak jasotzeko, edukiontziak erabiltzeko eskubidea izango du.

18. ARTIKULUA: BETEBEHARRAK

1. Saltzaileek begirunez hartuko dituzte erosleak.
2. Saltzaileen betebeharra da gatazkarik ez sortzea.
3. Saltzaileak osasun-zerbitzuen ikerketetan parte hartzeko prest agertuko dira. Betiere informazio eta datu zuzenak emanaz eta beroriei errespetua gordez.
4. Saltzaile guztiek, azokak behar bezala ibil daitezten, udal-ordezkariek ordenantza honekin eta salmentari buruzko legediarekin bat ematen dizkieten agindu guztiak bete beharko dituzte.
5. Saltzaileak, erostunaren aldetik erreklamaziorik badago, zein helbidetara jo dezakeen adieraziko du txartel baten bidez. Helbide hori betiere salmenta ordainagiri edo egiaztagirian azalduko da.
6. Pisagarri eta neurgarri diren salgaiak dituen postuan, arauturiko pisu eta metroa eduki beharrekoak izango dira.
7. Erosleak eskatzen badu, saltzailea honako datuok ematera behartuta dago:
 - Saltzailearen izena eta, balegokio, helbidea.
 - NAN, IFK (pertsona juridikoen kasuan).
 - Kontsumitzailearen eskaerak hartuko diren tokia.
 - Produktua.
 - Prezioa eta data.
 - Kopurua.
 - Izenpea.
8. Salmentako ordutegiaren barruan debekatuta dago lurrera material soberakinak botatzea, batez ere haizearen indarrez edo jendearen bultzadaz horiek leku batetik bestera mugitu eta erosleak, gainontzeko saltzaileak eta plazan dabiltzan herritarrak molestatzeko badituzte. Holako materiala, erabili eta botatzekoa, alegia, bere postuari

dagokion esparruaren barruan jasoko du saltzaileak, gero dagokion edukiontzira eramateko.

9. Azoka amaitu ondoren, lekua garbi geratuko da. Merkaritza-jardueraren ondorioz sorturiko zaborrak, horretarako ezarritako edukiontzietara botako dira. Edukiontzi horien kokapena ezin izango da aldatu kale salmenta jardueraren ondorioz.
10. Saltzaileak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat izenpetuko du. Beronek, jarduera gauzatzen den instalazioetan besteei egindako kalteak babestuko ditu.

19. ARTIKULUA: TASAK

1. Euskal Herria plazan egiten den azokan postu bat edukitzeagatik ordainduko diren tasak urtean urteko Ordenantza Fiskalak xedatuko ditu, postuaren kokapenaren eta hartzen duen lekuaren arabera.
2. Postuaren titularrak azoka egun arrunt batean huts egin arren, ordaindu egin beharko du egun horri dagokion kuota.
3. Udalak, arrazoi bereziak direla eta, azoka-eguna aldatzeko edo eta aldi batean eteteko eskubidea gordetzen du. Kasu hauetan postuen titularrek ez dute inolako kalte ordain eskubiderik izango.
4. Udalak udaltzainei edo baimendutako agenteari tasak ordaindu ez dituzten saltzaileen zerrenda emango die.
5. Tasa izango da hiru hilabetekoa, eta hiruhilekoaren aurreneko hamabostaldian ordainduko da.

Lehen hiruhilekoa: urtarrilaren 15a baino lehen.

Bigarren hiruhilekoa: apirilaren 15a baino lehen.

Hirugarren hiruhilekoa: uztailaren 15a baino lehen.

Laugarren hiruhilekoa: urriaren 15a baino lehen.

6. Postuaren titularitatea lortzen den data hiruhilekoaren hasierarekin bat ez baldin badator, titularitatea lortu eta ondorengo azoka egunak kobratuko zaizkio saltzaileari. Hurrengo hiruhilekoan kuoten erregimen orokorra atxikiko da.
7. Antolaketa eta zuzendaritza Udalak erabakitzen duen departamentuari dagokio.

ERREGIMEN ZIGORTZAILEA

20. ARTIKULUA: ZAINZA ETA IKUSKAPENA

1. Udala arduratuko da ordenantza honen bitartez adieraziriko arau-, higiene- eta osasun-baldintzak eta segurtasun-arauak bete daitezen.
2. Zaintza-lanetarako, Udalaren ordezkariak, produktuak eta bertako instalakuntzak ikuskatzeko baimena izango dute. Honela, saltzaileari behar bezain beste informazio eska diezaiokete.
3. Espedientea irekitzea dagokion autoritateak salgai dauden produktuak aldi baterako bahitzea erabaki dezake, baldin eta erostunen osasun eta segurtasuna arriskuan jartzen badute, edota salgaiaren kalitatea edo kantitatea iruzurrezkoak, bereizgarriak gabeak edo merkataritzarako ezarri diren gutxiengo baldintzak betetzen ez dituztenak badira.

ZIGOR-JARDUERA

21. ARTIKULUA:

Merkataritza-jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/94 Legean arautzen den Eusko Jaurlaritzako organo zigortzailearen aginpidearen kalterik gabe, ordenantza honetan xedatutakoarekiko arau-haustek Udalak zigortuko ditu.

22. ARTIKULUA: JARDUNBIDEA

Indarrean dagoen administrazio jardunbidearen arauak ezarritako prozedura erabiliko da ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteetan zigorrak jartzeko zein ebazpenen kontra errekurtsioak jartzeko.

23. ARTIKULUA: SALTZAILEAREN ERANTZUKIZUNA

Postu titular, beronen senide edo langileren batek arauen bat hausten badu, postu titularra izango da erantzulea.

HUTSEGITE ETA ZIGORRAK

24. ARTIKULUA: ARAU HAUSTEAK

Arau-haustek izan daitezke arinak, larriak eta oso larriak.

1. ARINAK

Arau-hauste arintzat joko da ordenantza honetako arauen bat ez betetzea, horrek ondorio ekonomikorik ez badakar eta erosleei kalterik eragiten ez badie, eta arau haustea larritzat edo oso larritzat sailkatuta ez badago.

2. LARRIAK

Larritzat hartuko dira honako arau-hauste hauek:

1. Arau-haustea arinak behin eta berriro egin izana.

2. Arauak hausten dituzten jarduerak eteteko eskakizuna ez betetzea.
3. Ondorio ekonomiko zuzen edota erostunei kaltea sor diezaioketenak.
4. Osasunaren inguruko arau-hauste larria suposatzen dutenak.
5. Udalaren baimenik gabe, salmenta aurrera eramatea.
6. Udal ordezkariak edo udaltzainek, ordenantza honetan aipaturiko ikuskatze lanak direla eta, eskaturiko informazio eta datuak emateari uko egitea, bai eta informazio desegokia, osoa ez dena ematea behin eta berriz gertatzen denean edo udal ordezkariekin mehatxu edo beste edozein presio bide erabiltzen denean.
7. Okerrak zuzentzeko eskaerari uko egitea.
8. Merkataritza lehiaketetako adjudikazioak bidegabe erabiltzea.
9. Merkataritza lehiaketa ofizialak antolatzea eta ospatzea baimenik gabe, edo irabazi asmoz "ofiziala" hitza erabiltzea ofizialtasunik lortu gabe, eta zuzenean baimenik gabe saltzea.
10. Merkataritza lehiaketa ofizialetan batzorderik ez egotea edo hori eratzeko araudiak agintzen duena ez betetzea.
11. Azoketako jarduerak burutzea horietako arautegiak agintzen duena bete gabe.

3. OSO LARRIAK

Oso larritzat hartuko dira honako arau-hauste hauek:

1. Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.
2. Osasunaren inguruko arau-hausteeekin batera gertatzen direnak edo gizakien segurtasuna arrisku larrian jartzen dutenak.
3. Gehiegizko irabazpidea ematen duten edo ekonomia antolaketa larriki aldatzen duten arau hauste larriak.
4. Kontsumitzaileei kalte larriak sortzen dizkietenak.
5. Baimenari dagozkion tasak ez ordaintzeagatik hirugarren premiamendua jasotzea.
6. Kontsumitzaileei kalte larriak eragitea.

25. ARTIKULUA: ZIGORRAK

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako legedi orokorrean aurreikusitakoa ezartzearen kalterik gabe, arau-hausteak merkataritza jarduerari buruzko maiatzaren

27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira. Arau-hauste arinak eta larriak zigortzea udalari dagokio, honako taula honen arabera:

1. ARAU-HAUSTE ARINAK

- Ohartu
- eta/edo 1.500 €-rainoko isuna.

2. ARAU-HAUSTE LARRIAK

- 9.000 €-rainoko isuna
- eta/edo baimena kentzea.

3. ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK

Arau-hauste oso larriak Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek zigortuko dituzte.

Tasak ez ordaintzearen arau-hauste larriak kanporatze jardunbideari ekitera eramango du Udala.

26. ARTIKULUA: ZIGOR OSAGARRIA

Espediente horren erabakia hartzea dagokion aginteak zigor gehigarri bat erabaki dezake: faltsifikaturiko, iruzurrezko, identifikatu gabeko edo komertzializaziorako behar-beharrezko diren arauak betetzen ez dituzten gaien konfiskazioa.

Zigor hori ere zigor nagusiari dagozkion arauetara doituko da.

27. ARTIKULUA: ZIGORREN MAILAKETA

Ezar daitezkeen zigorrak mailakatzeko, kontuan izango da betiere saldutako produktuen izaera, egindako kalteak, araua hautsi duenaren asmoa edo behin eta berriro egitea eta arau-hausteak gizartean izan dezakeen eragina.

28. ARTIKULUA: PRESKRIPZIOA

1. Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteek sei hilabetera galduko dute indarra, arinak badira; urtebetera, larriak badira; eta bi urtera, oso larriak badira.
2. Arau-hausteak indarra galtzeko epe horiek gertatu diren egunetik hasiko dira kontatzen.

Dagokiona jakinaren gainean egonik, zigortzeko jardunbidea hasteak preskripzioa etengo du, eta zigor espedientea hilabete baino denbora luzeagoz geldirik egoten bada, ustez arduraduna denak zerikusirik izan gabe, preskripzio epeak berriz aurrera egingo du.

3. Zigorrak indarra galtzeko epea zigorra jartzeko erabakia indarrean jarri eta biharamunean hasiko da.

Dagokiona jakinaren gainean egonik, egitaratzeko jardunbidea hasteaz preskripzioa etengo da, eta epeak berriz ere aurrera egingo du, arau-hausleak zerikusirik izan gabe jardunbide hori hilabete baino denbora luzeagoz geldirik badago.

29. ARTIKULUA: BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

1. Ordenantza hau indarrean jarri baino lehen lortutako udal baimenek indarrean jarraituko dute, hain zuzen ere ordenantza horren babesean, baimena lortu den urteko abenduaren 31 arte.
2. Ordenantza hau indarrean jartzekoan tramitazioan egon daitezkeen kaleko salmentarako baimen espedienteak, ordenantzan xedatutakora lotuko dira, nahiz eta espediente horiek lehenagotik irekitakoak izan. Horretarako, interesatuei dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatuko zaie, arauz hala eskatu behar bada.
3. Udalarekin zorretan dauden saltzaileek 2003. urtean zehar kitatuko dute zorra edota bestela alde zurretik finkatutakoaren arabera.

30. ARTIKULUA: XEDAPEN DEROGATZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen den une berean indargabetu egingo dira, maila berekoak edo beheragoak izanik, orain onartu den testuaren kontra badoaz, hori ukatzen badute edo horrekin bateragarriak ez badira.

31. ARTIKULUA: AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean agindutakoaren arabera jarriko da indarrean.

II. ERANSKINA

ZERKAUSIA, ATADI ETA BERDURA PLAZAKO MERKATUETAN ERABILIKO DEN ARAUTEGIA. KALEKO SALMENTA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA OROKORRAREN ERANSKIN HONEK ORDENANTZA HORREN EDUKIA GARATZEN ETA ZABALTZEN DU MERKATU HORIEI DAGOKIENEZ. .

ZERKAUSI, ATADI ETA BERDURA PLAZAKO MERKATUAK

KALEKO SALMENTAREN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA

1. ARTIKULUA: XEDEA

Arautegi honen xedea da ordenantza hau xehetasun handiagoz garatzea, Tolosako Zerkausian, Atadin eta Berdura plazan egiten den salmentari dagokienez.

2. ARTIKULUA: AZALPENA

Kaleko salmentatzat jotzen da merkataritza esparru batetik kanpo egiten dena, saltoki desmuntagarrietan edota salmentarako berariaz egokitutako ibilgailuetan, dela ohizko saltzaile batek dela noizbehinkako batek egina, saltzaile hori pertsona fisiko edo pertsona juridiko bat izan daitekeelarik. Kaleko salmentak udalaren baimena behar du, baimen hori ezin besterengana daiteke eta gehienez ere urtebeteko iraupena izango du. Zerkausian postua edukitzeko baimena urtero berritu beharko da, fitxa bat beteaz. (I.eranskina)

3. ARTIKULUA: PRODUKTUAK

Zerkausi, Atadi eta Berdura plazako merkatuetan bertako produktuak baino ez dira salduko (7. Artikuluaren arabera). Produktu horiek, gainera, erosi eta berriro saldu ahal izango dira. Alabaina, Udalak bere esku izango du, aparteko egoeretan, produktu jakin batzuk saldu edo ez

Erabakitzeko eskubidea, adibidez, perretxikoak, onddoak, senda-belarrak eta holakoak. Baina inolaz ere ezingo da saldu beren ezaugarriengatik herriko beste merkatu batzuetan saltzeko modukoak diren produktuak.

4. ARTIKULUA: ALDIZKAKOTASUNA

1. Azokak egingo dira Zerkausian, egunero, eta Zerkausian eta Berdura plazan, larunbat goizetan. Udalak bere esku gordeko du azokaren eguna aldatzeko eskubidea eta, baita ere, azoka bertan behera uztekoa, herriaren interesak hala eskatzen bada. Holakorik gertatzen bada, postuetako titularrek ez dute eskubiderik izango inolako kalte ordainik jasotzeko.

2. Atadi kaleko saltzaileak hilabeteko bigarren eta laugarren larunbatean etorriko dagokien urtaroon.

5. ARTIKULUA: ORDUTEGIAK

Merkatuak honako ordutegi hau izango du:

1. Postuak goizeko seietatik zortzi eta erdiak arte jarriko dira.

2. Eta eguerdiko ordu bietarako desmuntatuta eta jasota egon behar dira.

6:00-8:30 : Postuak muntatzea

12:45: postuak jasotzen hasi

14:00 : Merkatua amaitzea.

3. Karga eguerdian bi txandatan antolatua egongo da. Postuaren adjudikazioa egitean txanda eskaera egin beharko da. Lehenengoa 12:45etan eta bigarrena 13:15etan. Karga momentuan udaltzaingo baten laguntza izango da Solana kalean segurtasuna ziurtatzeko. Eskatutako ordutegia errespetatu beharko da. Baimena berritzerakoan betetzen den fintxan jarriko da jasotzeko ordua.

UDAL LIZENTZIAREN EZAUGARRIAK

6. ARTIKULUA: PROZEDURA

Udalaren lizentzia lortzeko honako dokumentazio hau aurkeztu behar du eskatzaileak:

1. Alkatetzara zuzenduriko eskaera, Tolosako Udaleko sarrera erregistroa duela. Eskaera horretan honako argibide hauek emango dira: postuak zenbat metro behar dituen, zer produktu eta zer urte sasoirako nahi den azokako postua.
2. Eskatzailearen N.A.N. eta Identifikazio Fiskalaren Kodea (nortasun juridikoa duenak).
3. Titularraren baimenaz noizbehinka salduko duten pertsonen N.A.N.aren fotokopia.
4. Nekazaritza Ustiapenen Erregistroan izena emanda dagoen saltzaileak hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar du.
5. Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Erregimenaren ordainagiriaren fotokopia, holakorik ordaintzen bada.
6. Pertsona juridikoek enpresaren eraketako eskritura eta, hala beharko balitz, Merkataritza Erregistroan izena emandakoaren agiria.
7. Titularraren argazki bat.

7. ARTIKULUA: POSTUA ESLEITZEKO IRIZPIDEA

Zerkausian kaleko salmentarako postuak esleitzerakoan honako lehentasun ordena hau gordeko da:

1. SALTZAILEAK

1.1 EKOIZLEAK

- a) Tolosaldeko baserritar ekoizleak, gutxienez produktuen %60a berak ekoiztutakoak izanik.
- b) Gipuzkoako baserritar ekoizleak, gutxienez produktuen %60a berak ekoiztutakoak izanik.
- c) Euskal Herriko baserritar ekoizleak edo ekoizleen elkarteak gutxienez produktuen %60 a berak ekoiztutakoak izanik.

1.2 BIRSAILTZAILEAK

- a) Euskal Herriko baserritar ekoizleek edo ekoizleen elkarteek ekoiztutako edo ekoiztu eta eraldatutako produktuak saltzen dituztenak, gutxienez produktu hauen presentzia %80koa izango da postuan.
- b) Euskal Herriko baserrietan ekoizten ez den produktu edo eta produktuen familiak saltzea onartzen da, beti ere postuan hauetan produktu hauen presentzia gehienez %20koa izango da.

2. PRODUKTUAK

- a) Lehentasuna izango dute Tolosaldeko baserrietan ekoiztutako edo ekoiztu eta eraldatutako produktuak.
- b) Eraldatutako produktuetan, baldin eta lehengaia nagusienak Euskal Herriko baserrietan ekoiztuta izan badira.
- c) Ekoizleen postuetan, Euskal Herrian ekoiztu edo ekoiztu eta eraldatutako produktuak saldu ahal izango dira soilik.
- d) Euskal Herriko baserrietan ekoizten ez den produktu edo/eta produktu familia baten salmenta soilik baimentzen zaie birsaltzaileen kategoria duten postuei. Euskal Herritik kanpoko produktu hauek zeintzuk diren aldez aurretik jakin araziko zaio udalari urteroko postuaren kontzesioa luzatzean eta bere baimena beharko da.

8. ARTIKULUA: INDARRALDIA

1. Udal baimenak gehienez ere urte bete iraungo du, hain zuzen abenduaren 31 arte, salbu Atadiko merkaturako denak; azken horrek denboraldia amaitzeaz batera galduko du indarra.
2. Baimena berritzeko, beharrezko agiriak aurkeztu beharko zaizkio udal agintaritzari horretarako ezartzen den epean.

9. ARTIKULUA: ADJUDIKAZIOAREN INDARRALDIA

Postuak adjudikatzeko xedez hilabeteko bi epealdi izango dira (bat, otsailtik martxoa bitartean; bestea, urritik azarora bitartean), postuen adjudikazioari buruzko informazioa emateko, eskaerak jasotzeko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

10. ARTIKULUA: LIZENTZIAK LORTZEA

Udal-lizentzia eskuratzean, Identifikazio-txartel bat eta Ordenantzaren kopia bat emango dio Udalak titularrari. Era berean, ezinbestekoa izango da baserritarrak ordenantzen kopia bat sinatu eta arauak onartzen dituelako adierazpena ere.

11. ARTIKULUA: ERABILERA

Udal-lizentzia edo baimena da pertsonala eta besterendu ezin daitekeena; hala ere, titularraren familiakoek eta legez baimendutako langileek ere erabili ahal izango dute.

12. ARTIKULUA: BAIMENA INDARGABETZEA

Lizentzia indarririk gabe utz dezake Udalak honoko egoera hauek ematen direnean:

1. Titularrak berak baja idatziz eskatzea.
2. Jabea hiltzea edo enpresa desegitea.
3. Baimena galtzea dakarren zigorra.
4. Saltokia beste norbaiti alokatzea.
5. Baimena emateko eskatzen diren baldintzaren bat ez betetzea.
6. Baimenik ez duten gaiak saltzea
7. Salmentarako baimendutako esparrutik kanpo saltzea
8. Baimenari dagozkion tasak ez ordaintzea (hiru premiamendu prozesu irekitzea).
9. Ondoz ondoko bost asteetan merkatura ez agertzea edo adjudikatu zaion saltokira txandaka ez agertzea 10 egunetan inolako arrazoirik gabe.
10. Urtea amaitzean.
11. Udal-organo eskudunaren iritziz baimena indargabetzeko arrazoia dagoenean.

13. ARTIKULUA: IDENTIFIKAZIOA

Saltzaile baimendu guztiek edukiko dute identifikazio-txartel bat zeina beti egon behar duen udal honek izendatutako langileen eskura.

Txartel horretan honako datu hauek azalduko dira argi eta garbi:

1. Titularraren edota baimena dutenen izen-abizenak.
2. Salduko den gaia.

3. Baimenaren indarraldia.
4. Egokitu zaion postuaren zenbakia.

Ezinbestekoa da azoka-egunetan identifikazio-txartelak postuetan agerian egotea.

14. ARTIKULUA: POSTUAK ETA PRODUKTUAK

1. Udalak jarriko ditu Zerkausiko merkatuan saltzaileek erabili behar dituzten mahaiak. Derrigorrezkoa da mahaiak erabiltzea, ezin dira produktuak lurrian edukitu. Saltzailearen batek bere mahaiak erabili nahiko balu, mahai horrek bat etorri behar du Udalak jartzen dituen mahaien neurriekin.
2. Baserritar ekoizleak eskubidea izango du berak landatzen dituen alorren arabera mahai-kopurua jartzeko. Nolanahi ere titular bakoitzak gehienez ere bost mahai jarri ahal izango ditu.
3. Erabat debekatuta dago Ordenantza honetako 7. artikuluan aipatzen ez diren produktuak saltzea.
4. Espezie mikologikoei dagokienez (onddoak, gibelurdinak, zizahoriak...), Tolosako Udalak ez du inolako erantzukizunik bereganatuko espezie horiek identifikatzerakoan akatsen batek egin delako etor daitezkeen ondorioengatik.
5. Eraldatutako edo/eta ontziratutako produktuei dagokienez, behar bezala identifikatu behar dira eta osasun-erregistroa edo baimena edukitu behar dute.
6. Sendabelarrei dagokienez, Tolosako Udalak ez du inolako erantzukizunik bereganatuko horiek identifikatzerakoan eta/edo administratzerakoan akatsen batek egin delako erator daitezkeen ondorioengatik.
7. Debekatuta dago salgaiak eta hondakinak postuz kanpo uztea. Debekatuta dago, halaber, jendearen pasabideak oztopatzea.
8. Udalak erabakiko du betiere postu berrien kokapena. Batzordearekin ere kontsultatu beharko da, bete beharreko iritzia da-eta.
9. Udalak postuen banaketa aldatzea erabaki dezake, baldin eta egokitzen jotzen badu oro har merkatuarentzat.

SALTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

15. ARTIKULUA: ESKUBIDEAK

1. Saltzaileak Udaltzaingoaren babesa eska dezake, baimenduriko jarduerak betetzeko

behar badu.

2. Titularrak erreklamazioak eta iradokizunak idatziz aurkez dezake merkatuaren antolamendua hobetzarren.
3. Udalak azoka eguna, jai edo ospakizun berezi bat dela eta, aldatzea erabakitzen badu saltzaileak Udalaren erabaki hori astebeteko aurrerapenez jakiteko eskubidea du.
4. Saltzaileek begirunez hartuko dituzte erosleak.
5. Saltzaileen betebeharra da gatazkarik ez sortzea
6. Saltzaileek, azokak garapen egokia izan dezan, udal-ordezkariek ordenantza honekin eta kaleko salmentari buruzko legediarekin bat etorrita ematen dizkieten agindu guztiak bete beharko dituzte, postuak adjudikatzean.
7. Produktuak pisura saltzen direnean, udal-ordezkariek edonoiz ikuskatu ahal izango dute pisuen fidagarritasuna.
8. Azoka amaitu ondoren, lekua garbi geratuko da. Merkataritzako jardueraren ondorioz sorturiko zaborrak, horretarako ezarritako gaikako edukiontzietara botako dira. Edukiontzi horien kokapena ezin izango da aldatu kale-salmentako jardueraren ondorioz.

16. ARTIKULUA: BETEBEHARRAK

1. Saltzailea azokako ekoizleen elkarteko kide egin beharko da adjudikazioa egitean.

Urtero ordezkari bat izendatuko dute eta haiekin harreman zuzena mantenduko da bi hilabetez behin batzordea eginez.

2. Udalak egindako batzar-deialdietan parte hartzea ezinbestekoa da.

3. Produktuen jatorria identifikatzea ezinbestekoa izango da. Baserriaren izena, herria eta Gipuzkoakoa ez denean probintzia ere adierazi beharra izango da produktu guztietan. Ez dira onartuko hitz edo termino orokorrak (baserrikoa, bertakoa...)

4. Produktu bakoitzaren prezioa adierazi behar da, unitatea adieraziz (unitatea, kg...)

5. Jatorria eta prezioa jarri behar dira postu bakoitzari helburu horretarako banatuko zaizkion fitxetan.

6. Azokak garapen egokia izan dezan, saltzaileek bete beharko dituzte udal ordezkariak, ordenantza honekin eta kaleko salmentari buruzko legediarekin bat etorrita, ematen dizkieten agindu guztiak. Produktua beste ekoizle batena badaagiri bat aurkeztu beharko

da, bertan honako datuak jasoko dira: Data, herria, jatorrizko ekoizlearen izen deitura, NAN zenbakia eta helbidearekin.

7. Produktuak pisura saltzen direnean, udal-ordezkariek edonoiz ikuskatu ahal izango dute pisuen fidagarritasuna.
8. Azoka amaitu ondoren, lekua garbi geratuko da. Merkatal jardueraren ondorioz sorturiko zaborrak, horretarako ezarritako edukiontzietara botako dira.
9. Plastikozko poltsen erabilera ez da baimentzen. Konpostagarriak direnak erabili beharko dira.
10. Saltzaileek begirunez hartuko dituzte erosleak.
11. Saltzaileen betebeharra da gatazkarik ez sortzea.

17. ARTIKULUA: EUSKARAREN ERABILERA

1. Euskaraz idatziko dira produktueta jartzen diren ohar edo/eta idatziak.
2. Saltzaileek bidalitako idazkiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Bigarren aukera hautatuz gero, euskarari emango zaio lehentasunezko lekua.

18. ARTIKULUA: KUOTAK

1. Urtean urteko Ordenantza Fiskalak xedatuko ditu Zerkausion eta Berdura plazan egiten diren azoketan postu bat edukitzeagatik ordainduko diren kuotak, postuaren kokapenaren eta hartzen duen lekuaren arabera.
2. Atadin zuhaitz-landareak saltzeko leku bat gordetzeagatik ordaindu behar diren kuotak izagongo dira urtean urteko Ordenantza Fiskalak xedatzen dituenak, postuaren kokapenaren eta hartzen duen lekuaren arabera.
3. Postu-titularrak azoka-egun arrunt batean huts egin arren, egun horri dagokion kuota ordaindu egin beharko du.
4. Udalak, arrazoi bereziak direla eta, azoka-eguna aldatzeko edo eta aldi batean eteteko eskubidea gordetzen du. Kasu hauetan postu-titularrek ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
5. Udalak udaltzainei emango die kuotak ordaindu ez dituzten saltzaileen zerrenda.
6. Zerkausin urtekoa izango da kuota, eta urtarrilaren 30a baino lehen ordaindu behar da, honela:

- Mahai bakoitzeko kuota finkoa/hileko
- Saltzen den produktu familia bakoitzeko kuota finkoa.

Produktu familiak: a) Barazkiak b) Ogiak, gozoak c) Perretxiko edo onddoak d) Frutak e) Eraldatuak, f) Arrautzak g) Esnekiak h) Loreak i) Landareak.

7. Berdura plazako kuota urte osorako ordainduko da, salmentarako baimena urtea hasita dagoela eskuratzen denean izan ezik. Orduan, baimena jasotzen denetik urte bukaera arte dagokion zatia ordainduko da. Eskaera urte-sasoi jakin baterako bada, proportzioan ordainduko da.

8. Postuaren titularitatea lortzen den data hiruhilekoaren hasierarekin bat ez baldin badator, titularitatea lortu eta ondorengo azoka-egunak kobratuko zaizkio saltzaileari. Hurrengo hiruhilekoan kuoten erregimen orokorra atxikiko da.

9. Udalak aginduko du zein udal-departamentu arduratuko den araudi honetan aipatu diren merkatuetako antolaketaz eta zuzendaritzaz.

ERREGIMEN ZIGORTZAILEA

19. ARTIKULUA: ZAINZA ETA IKUSKAPENA

1. Zaintza lanetarako, udal-ordezkariek baimena izango dute produktuak eta bertako instalakuntzak ikuskatzeko, saltzaileari behar bezain beste informazio eska diezaioketelarik.

Udalak, edo eskumena duen beste organo batek, eskubidea izango du ustiategira joateko, denboraldi bakoitzean nekazariak landatzen dituen produktuak ikuskatzeko.

ZIGOR-JARDUERA

20. ARTIKULUA:

Merkataritza-jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/94 Legean arautzen den Eusko Jaurlaritzako organo zigortzailearen aginpidearen kalterik gabe, ordenantza honetan xedatutakoarekiko arau-hausteak Udalak zigortuko ditu, betiere berari dagokion eskumeneko arazoa bada.

21. ARTIKULUA:

Indarrean dagoen administrazio-jardunbidearen arauak ezarritako prozedura erabiliko da ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustetean zigorrak jartzeko zein ebazpenen kontra errekurtsioak jartzeko.

22. ARTIKULUA:

Postuaren titularrak izango du erantzukizuna baldin beraren senide batek, edo langileren batek, Ordenantza honetako arauen bat hausten badu.

HUTSEGITE ETA ZIGORRAK

23. ARTIKULUA: ARAU-HAUSTEAK

Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

1. ARINAK

Arau-hauste arintzat joko da ordenantza honetako arauen bat ez betetzea, horrek ondorio ekonomikorik ez badakar eta erosleei kalterik eragiten ez badie, eta arau-haustea larritzat edo oso larritzat sailkatuta ez badago.

2. LARRIAK

Larritzat hartuko dira honako arau hauste hauek:

1. Arau-hauste arinak behin eta berriro egin izana.
2. Arauak-hausten dituzten jarduerak eteteko eskakizuna ez betetzea.
3. Ondorio ekonomiko zuzena edota erostunei kaltea sor diezaioketenak.
4. Osasunaren inguruko arau-hauste larria suposatzen dutenak.
5. Udalaren baimenik gabe, salmenta aurrera eramatea.
6. Udal-ordezkariek edo udaltzainek, ordenantza honetan aipaturiko ikuskatze lanak direla eta, eskaturiko informazio eta datuak emateari uko egitea, bai eta informazio desegokia, osoa ez dena ematea behin eta berriro gertatzen denean edo udal-ordezkariekin mehatxu edo beste edozein presio bide erabiltzen denean.
7. Okerrak zuzentzeko eskaerari uko egitea.
8. Merkataritza-lehiaketetan esleipenak bidegabe erabiltzea.
9. Merkataritza-lehiaketa ofizialak antolatzea eta ospatzea baimenik gabe, edo irabazi asmoz "ofiziala" hitza erabiltzea ofizialtasunik lortu gabe, eta zuzenean baimenik gabe saltzea.
10. Merkataritza-lehiaketa ofizialetan batzorderik ez egotea edo hori eratzeko araudiak agintzen duena ez betetzea.
11. Azoketako jarduerak burutzea horietako arautegiak agintzen duena bete gabe.

3. OSO LARRIAK

Oso larritzat hartuko dira honako arau hauste hauek:

1. Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.
2. Osasunaren inguruko arau-hausteekin batera gertatzen direnak edo gizakien

- segurtasuna arrisku larrian jartzen dutenak.
3. Gehiegizko irabazpidea ematen duten edo ekonomia antolaketa larriki aldatzen duten arau-hauste larriak.
 4. Kontsumitzaileei kalte larriak sortzen dizkietenak.
 5. Baimenari dagozkion tasak ez ordaintzeagatik hirugarren premiamendua jasotzea.
 6. Kontsumitzaileei kalte larriak eragitea.

24. ARTIKULUA: ZIGORRAK

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako legedi orokorrean aurreikusitakoa ezartzearen kalterik gabe, arau-hausteak merkataritza-jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira. Arau-hauste arinak eta larriak zigortzea udalari dagokio, honako taula honen arabera.

1. ARAU-HAUSTE ARINAK

Ohartu
eta/edo isun bat (gehienez, 1.500
€)

2. ARAU HAUSTE LARRIAK

Isun bat (gehienez, 9.000 €)
eta/edo baimena kentzea.

3. ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK

Arau-hauste oso larriak Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek zigortuko dituzte.

Tasak ez ordaintzeagatik egindako arau-hauste larriak berekin ekarriko du Udalak kanporatze-jardunbideari ekitea.

25. ARTIKULUA: ZIGOR OSAGARRIA

Zehapen-espedientea ebatzi behar duen agintariak erabaki dezake zigor gehigarri bat jartzea: konfiskatzea faltsifikazio edo iruzur bat den produktua, edo behar bezala identifikatu gabe dagoena, edo komertzializatzeko ezinbesteko baldintzak betetzen ez dituenak.

Zigor hori ere zigor nagusiari dagozkion arau berberetara egokituko da.

26. ARTIKULUA: ZIGORREN MAILAKETA

Ezar daitezkeen zigorrak mailakatzeko, kontuan izango da betiere saldutako produktuen izaera, egindako kalteak, arau hautsi duenaren asmoa edo behin eta berriro egitea eta arau-hausteak gizartean izan dezakeen eragina.

27. ARTIKULUA: PRESKRIPZIOA

1. Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteei sei hilabetera galduko dute indarra, arinak badira; urtebetera, larriak badira; eta bi urtera, oso larriak badira.
2. Arau-hausteak indarra galtzeko epe horiek gertatu diren egunetik hasiko dira kontatzen.

Dagokiona jakinaren gainean egonik, zigortzeko jardunbidea hasteak preskripzioa etengo du, eta zigor-espedita hilabete baino denbora luzeagoz geldirik egoten bada, ustez arduraduna denak zerikusirik izan gabe, preskripzio epeak berriz aurrera egingo du.

Zigorrak indarra galtzeko epea zigorra jartzeko erabakia indarrean jarri eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Dagokiona jakinaren gainean egonik, egitaratzeko jardunbidea hasteaz preskripzioa etengo da, eta epeak berriz ere aurrera egingo du, arau hauleak zerikusirik izan gabe jardunbide hori hilabete baino denbora luzeagoz geldirik badago.

28. ARTIKULUA: BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

1. Ordenantza hau indarrean jarri baino lehen lortutako udal baimenek indarrean jarraituko dute, ordenantza honen babesean, ordenantza onartzen den urtea amaitu arte. Nolanahi ere, baimenek gehien-gehienez baimenean bertan zehaztuko den dataraino iraungo dute.
2. Ordenantza hau indarrean jartzerakoan tramitazioan egon daitezkeen kaleko salmentarako baimen-espeditak, ordenantzan xedatutakora lotuko dira, nahiz eta espedita horiek lehenagotik irekitakoak izan. Horretarako, interesatuei dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatuko zaie, arauz hala eskatu behar bada.

29. ARTIKULUA: XEDAPEN DEROGATZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen den une berean indargabetu egingo dira orain onartu den testuaren kontra doazen edo berarekin bateragarriak ez diren maila bereko edo beheragoko xedapenak.

30. ARTIKULUA: AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985
Legean agindutakoaren arabera jarriko da indarrean.

Tolosa, 2014ko _____ren _____a.

ERANSKINA 1

ZERKAUSIKO /BERDURA ETA ATADI KO MERKATUA
SALTZAILEEN DATU BILKETA



POSTUA ERABILIKO DUEN PERTSONAREN DATUAK			
Datos de la persona que va a regentar el puesto			
IZEN- ABIZENAK Nombre y apellidos			
NAN / DNI		TELEFONOAK/Teléfono os	943 673251
HELBIDE A Dirección			
HERRIA Localida d		PK CP	
IBILGAILUAREN MATRIKULA / Matrícula del vehículo			
EGUERGIAN KARGATZEKO TXANDA (EGIN X NAHI DUZUENEAN)	12: 45 ETAN	13: 15 ETAN	
PERTSONA JURIDIKOA BADA / Si es persona jurídica			
ENPRESAREN IZENA Nombre de la empresa			
ORDEZKARIAREN IZEN-ABIZENAK Nombre y apellidos del representante legal		NAN DNI	

IFK	TELEFONO A	FAXA, E- POSTA	
NIF	Teléfono	Fax, e-mail	
HELBIDE A			PK
Dirección			CP
HERRIA	PROBINTZI A		
Localida d	Provincia		

POSTUAREN DATUAK / Datos del puesto			
MAHAI KOPURUA edo M ²		POSTU ZK.	
Nº de mesas o m ²		Nº Puesto	
SALMENTA EPEA ZEHAZTU HILABETEA Periodo de venta			
PRODUKTUA Producto (EGIN x) ZEHAZTU	<u>a) Barazkiak</u> <u>b) Ogiak, gozoak</u> <u>c) perretxiku edo onddoak</u> <u>d) frutak</u> <u>e) eraldatuak,</u> <u>f) arrautzak</u> <u>g) esnekiak</u> <u>h) loreak</u> <u>i) landareak</u>		

OHARRAK

Notas

Tolosan,.....

Sinadura/Firma

SALTZAILA MOTA / Tipo vendedor

	Tolosaldeko baserriar produktorea / Productor baserriarra Tolosaldea
	Tolosaldeko produktuak saltzen dituen Tolosaldeko baserriarra / Baserriarra de Tolosaldea vendiendo productos de Tolosaldea
	Gipuzkoako baserriar produktorea / Productor baserriarra de Gipuzkoa
	Gipuzkoako produktuak saltzen dituen Gipuzkoako baserriarra / Baserriarra de Gipuzkoa vendiendo productos de Gipuzkoa
	Euskal Herriko baserriar produktorea / Productor baserriarra de Euskal Herria
	Euskal Herriko produktuak saltzen dituen Euskal Herriko baserriarra / Baserriarra de Euskal Herria vendiendo productos de Euskal Herria
	Euskal Herriko produktu saltzailea / Vendedor de productos de Euskal Herria
	Besteak / Otros

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA / Documentación presentada

	NAN fotokopia / Fotocopia del DNI
	IFK fotokopia (portsona juridikoa bada) / Fotocopia del CIF (si es persona jurídica)
	Titularraren baimenarekin, noizbehinka salmenta egiten duten pertsonen N.A.N. aren fotokopia /Fotocopia del DNI de las personas que tengan permiso del titular para ejercer la venta en el puesto.
	Nekazaritza Ustiapenen Erregistroan izena emanda dagoelako agiriaren fotokopia / Fotocopia del documento de inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias.
	Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Erregimenaren ordainagiriaren fotokopia / Fotocopia del Régimen Agrario de la Seguridad Social, en el caso de cotizar.
	Pertsona juridikoen kasuan, enpresaren eraketako eskritura eta Merkataritza Erregistroan izena emandakoaren agiria / En el caso de personas jurídicas, escritura de constitución de la empresa, debidamente inscrita, en su caso, en el Registro Mercantil.
	Manipulaztaile-karneta / Carnet de manipulador (si el producto de venta lo requiere)
	Argazki 1 / 1 fotografía

**ADJUDIKAZIOA LEHEN ALDIZ EGITEN DENEAN BEHEKO DOKUMENTAZIOA
AURKEZTU BEHAR DA. ONDORENGO URTEETAN EZ BADA ALDAKETARIK, EZ DA**

BEHARREZKOA DENA BERRIZ AURKEZTEA, BAINA ALDAKETAK BALDIN
BADAUDE ADJUDIKATZAILEAREN BETEBEHARRA IZANGO DA HAU ADIERAZTEA
UADALARI ETA DAGOZKION AGIRIAK EGUNEAN IZATEA.

ERANSKINA 2

Azokako postu baten adjudikazioa duen edozein pertsonak
erreklamazioak egiteko eskaera eredia



Subjektu pasiboa Sujeto pasivo	Izen-abizenak / Apellidos y nombre	NAN / D.N.I.
	Postu-zenbakia:	
	Helbidea / Domicilio	Telefonoa

Esakera /solicitud	
-----------------------	--

Sinadura/Firma

Tolosa _____ ko _____ aren ____ a